

Ireki da Doktorego aurreko fakultateko diru-laguntzak eskatzeko epea 2016-2017 ikasturtean

2016/07/21

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ireki egin du Doktorego aurreko laguntzen deialdia 2016-2017 ikasturterako.

ONURADUNAK

Doktorego programan matrikulatuta edo matrikulatzeko prozesuan dauden ikasleentzat.

ESKAEREN FORMALIZAZIOA

Diru-laguntza hau eskatzeak berekin dakar, ezinbestean, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2016-2017 ikasturteari begira irekiko duen doktoretza-aurreko beken deialdira aurkeztea, bai eta, ondoren, beka horietarako hautespen-prozesuan onartua izatea. Horretarako, interesdunek, dagozkion epeak eta formak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren aipatu beken deialdirako eskabidea ondu eta aurkeztu beharko dute, eta beka hori eskuratzeko ebaluazio-prozesuan onartuak izan. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen (HUHEZ)ren) doktorego-aurreko laguntza-programaren hautespen-prozesutik kanpo geratuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako Zuzendaritzatik 2016/-2017 ikasturterako PREDOC deialdi berria datorren uztailaren 28an argitaratuko dutela jakinarazi digute eta eskabideak aurkezteko epea **2016/07/29 - 2016/09/09**, biak barne izango dela. Bide batez, jakinarazi digute ere aurten eskatuko diren dokumentuak pasa den urtean eskatutako dokumentu berdina direla. Beraz, mesedez, epe eta informazio horiek kontuan izan. Laguntza gisa, hemen daukazue, aurreko ikasturteko deialdiaren esteka.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Fakultateko Idazkaritza akademikoa: 943 71 31 39
- Doktorego Aurreko Laguntzak 2016-2017 ikasturtea (PDF).
- 2014-2015ko Eusko Jaurlaritzako doktorego aurreko beka deialdia.

